**MATEMATIKA BIGARREN ZIKLOAN**

**Arrankudiagako Eskola**
**Nekane Otsoa**

TAILERRARAREN HELBURUA

Tailer honen helburua zera da: praktika onen adibide zehatza ematea. Izatez modu asko daude zentzu handikoak testu liburuetatik at matematika gelan lantzeko.

GAIA/ ARDATZA

Bi proiektuen arteko trantsiziozko egoera batean gelan egunkariak hasi ziren agertzen. Haiei deigarriak egiten zitzaizkien berrietan gelditzen ziren eta haien artean honako hau:

> ***"El 85% de los docentes de colegios públicos puede dar clase en euskera"***

Honetan oinarriturik galderaK eragin zaizkien:

- Zer esan nahi du %85-ak?
- Zer ulertzen duz8u zuk?
- Zer uste duzu dela hori?

Haur bakoitzari papera ematen zaio bertan bere eran guzti hori adierazteko. Haurren usteak agertzen hasten dira GELAKO POLIFONIA sortuz. Horrela ikaskuntza dialogikoa aurrera eramaten da.






ERANTZUNAK






HAURREK EZ DUTA ESKOLAN BAKARRIK IKASTEN. Gauza asko dakikizkite.

## Hipotesia:

***El 85% son los ¾ de 100***

Egiten zaizkien galderak:

- Zer egin duzu?
- Zer pentsatzen duzu?
- Nola azalduko duzu?
- Zergatik esaten duzu hori?

Ez dugu aztertzen zer egin duen ondo...edo ez. Irakaslearen eginkizuna zera da: ikaslea ematen ari den azalpena gelakide guztiek ulertzea eta aztertzea.
Elkarren interakzioaren bidez ideia berriak sortzen doaz. Haurrek ez dute bakarrik eskolan ikasten, gauza asko dakizkite eta horiek ere plazaratzen utzi behar dira.

## **Kalkulatzeko gure moduak:**


El 50% es el medio de un numero. Imagina, com este numero 10. El medio de 40 es 20 y el medio de 20 es 10. Asique 10 × 4 = 40. 20 es 50% de 40. 10 es 50% de 20. 10 + 10 = 50. 50 es 75% y para hacer 85% tienes que hacer 75% + 10% = 85%.




















Kalkulatzeko taula luzeak sortzeko gauza dira, baina momentu bat heltzen da non eragiketak eta kalkuluak sinplifikatzeko beharra azaltzen da . **-atajoak-**

%100:100= %1a
%1 x 85= % 85



Gizarteak portzentaiak nola interpretatzen dituen balioa ematen dio ikerketari eta gelan egoera berriak agertzen dira:

- **Zenbat lekuetan agertzen dira ehunekoak?**

| Viajes El Corte Inglés<br>Hacemos un descuento del 7%<br>........ | Mintegi<br>Gama Ford focus 25 %<br>Gama Ford Fiesta 30% |
|---|---|

**Suscriptores del Correo**

!0% de descuento al comprar la pulsera de 25 €




Dena horrekin bizitza errealetik ateratako egoerekin bateria sortzen da. Etxeetara zereginak bezala eramaten dituzte.

Egoera problematiko gehiago agertzen dira gurasoekin elkarrekintzan:

- Gurasoek oso kalkulu konplikatu eta luzeak egiten dituztela deritze eta saiatzen dira errazten. Horretarako hiruko erregela egiten erakusten diete ikasle batzuei. Hauek ez dutela ulertzen diote eta eskolara ekartzen dute.

Ikasleen proposamen berria: Etxetik ekarritako hiruko erregela berriak buruketa bati aplikatzea.

- Nola kalkulatu dute gurasoek?
- Zein eragiketa?
- Zein ordenean?
- Zer kalkulatzen dute?







Beste alde batetik kalkulagailuak ere daude hain zuzen kalkuluak egiteko balio dutenak. **Zelan uste duzue kalkulagailuak egingo duela?**

**Bizikletaren prezioa (149-30% ) kalkulatzeko era guztiak frogatzeko erabakia hartzen dute. DENAK ULERTZEN SAIATZEN DIRA**




1. kasuan lana kalkulagailuak egiten du

3. kasuan guk

Bizitza errealeko beste testuinguruak topatzen ditugu portzentaiak erabiltzeko aukera ematen dutenak:




Prozesu osoa adibide oso ona izan da Carlos Gallego-ren hitzetan "***Espektatiba handiko jarduera***"-rena hain zuzen. Askotan testu liburuak ekartzen dituztenak baino konplexuagoak, dudarik ez esanguratsuagoak, eta indartsuagoak. Matematika lantzeko testuinguru egokiak bilatu behar dira. Horretarako nahiko izaten da bizitza matematikako betaurrekoekin begiratzea.

Estrategiak :

- Talde giroa asko landu behar da, behar beste denbora eskainiz.
- Norberaren ideiak paper zurian adierazten dira, denenak baliagarriak direla azpimarratuz. Barneko ideiak adierazteko prozesuan bitartekari bezala balio daitekeen edozer elementu onartzen da: irudiak, letrak, eragiketak... Horrela guztionak onartu eta kontutan hartzen dira.
- Hortik abiatuta, guztion prozesuak ulertzen saiatzen gara.

***"Reconocerse y reconocernos como personas de valor"***
***Carlos Gallego***